

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

The Hilliard Ensemble laukote britainiarra Lizarran izango da astelehenean bere agur-biran

45. Antzinako Musika Asteari hasiera emango dio, sei kontzertu eta jarduera osagarriak dituen zikloari

Viernes, 29 de agosto de 2014

[The Hilliard Ensemble](#) laukote britainiarrak, ahots-ganberako munduko talde onenetako bat jotzen dena, [Lizarrako Antzinako Musika Astearen 45. edizioa](#) (SMAE) inauguratuko du datorren astelehenean, irailak 1 bere agur-biraren barnean sartzen den kontzertu batekin.

Ospe paregabearekin eta 40 urteko ibilbidearekin, The Hilliard Ensemble-k (bi tenorrek, kontratenor batek eta baritono batek osatzen dute laukotea) Erdi Aroko eta Errenazimentuko erreperitorioa eskainiko du, polifonia ingelesa eta frantsesarena, bereziki. Emanaldia San Migelgo elizan hasiko da, 20:15etik aurrera. Haren interpretazioaren aurretik, Manuel Horno musikologoak egingo duen sarrera entzun ahal izango dute ikus-entzuleek.

Sarrerak honako helbide honen bidez bideratzen dira: www.culturana Navarra.es, eta bertan zehazten dira SMAEko beste kontzertu batzuk eta baita jarduera osagarriak ere. Internet bidez erositako sarrerak (haien prezioa 2 eurotan igotzen da San Migel elizako leihatilan, kontzertua hasi baino ordubete lehenagotik) 20 euro balio dute honako hauen kontzertuetarako: The Hilliard Ensemble, Les Talens Lyriques (irailak 5) eta La Risonanza eta Roberta Invernizzi (irailak 6); 18 euro Gli Incogniti eta Amandine Beyer (irailak 13) eta La Ritirata-ren kontzertuetarako; eta 10 euro Nafarroako Ganbera Abesbatzarenerako (astelehena, hilak 8).

Dantza-tailerra

[Programa](#)ren barnean musika barroko tailer bat ere sartzen da, antzinako musikari buruzko eta Nafarroako Erdi Aroko hari-instrumentuei buruzko hitzaldiak, zinema-zikloa, musika- nahiz dantza-ikuskizunak, haurrentzako jarduera pedagogikoa eta baita turismo-eskaintza erakargarri bat ere.



The Hilliard Ensemble-k polifonia ingelesa eta frantsesa eskainiko ditu astelehenean, hilak 1.

Hala, hilaren 2tik, asteartea, 4a bitarte, osteguna, [tailer](#) bat emango da XVII-XVIII. mendeetako antzinako dantza-maisuengandik oinordetutako pausoak zein ziren jakiteko. Nafarroako unibertsitateen uda-ikastaroen barnean sartuta eta Peio Otano Eguaras irakasleak gidatuta, jende guztiarentzat zabalik dago.